



**Busturiko
Udala**



Akta

UDALAREN OSOKO BILKURA
2013 – APIRILA - 24

SESION PLENARIA MUNICIPAL
24 - ABRIL - 2013

TOKIA / LUGAR: Udaletxea

HASIERA / INICIO: 19:30

AMAIERA/FINAL: 20:00

BERTARATUAK / ASISTENTES:

ALKATEA/ALCALDESA

Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda (BILDU)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

Ziortza Bilbao Agirre (Bildu)

Jone Miren Arrasate Urquiaga (Bildu)

Berezi Echebarria Rivas (Bildu)

Miren Nekane Renteria Echevarria (Bildu)

Jon Ander Zulueta Andicoechea (Bildu)

Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)

Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

Andrés Zearreta Otazua (EAJ-PNV)

IDAZKARI NAGUSIA/ SECRETARIO GENERAL

Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria

DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera



Busturiako Udaletxean, aipatu egun eta orduan, Alkatea Mahaiburu eta goian aipatu zinegotziak bertaratuta, Osoko Bilkura bildu zen ohiko bilkura lehen deialdian burutzeko. Saioan ebaztitakoaren fede Udaleko Idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarezek eman zuen.

Alkate anderearen aginduz, zinegotzien artean behar adina denboraz banatutako gai ordenaren arabera ekin zitzaion bilerari, eta honako erabakiak hartu ziren:

Bilkura hasi aurretik Alkate andreak hurrengo gutuna irakurri zuen:

En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa, y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió el Ayuntamiento Pleno, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden de la Sra. Alcaldesa dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

1.- Aurreko saioko akta.-

Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen 2013ko martxoaren 20ko saioko akta.

1.º.- Acta de la sesión anterior.-

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, aprobó el acta de la sesión de 20 de marzo de 2013.

2.º.- 2012 urteko kontu orokorra.-

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 116. artikuluan eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 63. artikuluan ezarritakoaren arabera, aldeko sei botorekin eta hiru abstentziorekin, 2012 Ekitaldiko Aurrekontuko Kontu orokorra onartu zen, Alkate andreak egina eta 15 egunez publikoaren eskura jarria, erreklamazio, oztopo edo oharrik aurkeztu gabe.

Kontu orokorrak aurrekontuko, aurrekontu kanpoko, ondasuneko eta diru-zaintzako eragiketa guztiak jasotzen ditu, ekitaldian zehar eginak, eta 10/2003 Foru Arauaren 62. artikuluan ezarritako dokumentazioak osatzen ditu.

2.º.- Cuenta general del año 2012.-

En cumplimiento de lo establecido en el artículo 116 de la Ley 7/85, reguladora de las Bases del Régimen Local, y art. 63 de la Norma Foral 10/2003, de 2 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Bizkaia, el Ayuntamiento Pleno, por seis votos a favor y tres abstenciones, acordó la aprobación de la Cuenta General del Presupuesto del Ejercicio 2012, que ha sido rendida por la Sra. Alcaldesa y sometida a información pública por plazo de 15 días, sin que se hayan presentado reclamaciones, reparos u observaciones.

La Cuenta General representa todas las operaciones presupuestarias, extrapresupuestarias, patrimoniales y de tesorería llevadas a cabo durante el ejercicio y se compone de la documentación establecida por el artículo 62 de la citada Norma Foral 10/2003.

3.- Hitzarmena Bizkaiko Foru Aldundiarekin.-

Udalbatzak aho batez onartu zuen hitzarmen bat sinatzea Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzen Sailarekin Udalen honen zuzenbide publikoko diru-sarreraren bilketa exekutiborako, 2012ko abenduaren 18an Foru Gobernuaren Batzordeak onartu eta 2012ko urtarrilaren 28an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaraturiko ereduaren arabera.

3.º.- Convenio con la Diputación Foral de Bizkaia.-

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó suscribir un convenio con el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia para la recaudación ejecutiva de los ingresos de derecho público de este Ayuntamiento, conforme al modelo aprobado por Consejo de Gobierno Foral del 18 de diciembre de 2012 y publicado en el Boletín Oficial de Bizkaia de 28 de enero de 2013.

4.- Hitzarmena Udalbiltza Patzuergoarekin.-

Udalbatzak, aldeko 6 boto eta 3 abstentziorekin, Udalbiltza

4.º.- Convenio con Udalbiltza Partzuergoa.-

El Ayuntamiento Pleno, por 6 votos a favor y 3 abstenciones,



**Busturiko
Udala**



Akta

Patzuergoarekin “Euskal herri mailako azterketa” egiteko sinatu beharreko hitzarmena sinatzea onartu zuen.

acordó aprobar el convenio a suscribir con Udalbiltza Patzuergo para realizar “Euskal Herri mailako azterketa”.

5.- Hitzarmena Sostrecivicekin.-

Udalbatzak, aldeko sei boto eta hiru abstentziorekin, Sostrecivicekin sinatu beharreko hitzarmena sinatzea onartu zuen, MCU (Modelo de cesión de uso – Erabileraren lagapen eredu) sistema kooperatiboaren proiektu pilotu bat garatzeko, Sostrecivic SCCL erabiltzaileen kooperatibaren eta irabazi asmorik gabeko etxebizitzaren fase bat gisa.

Alkate andreak azaldu zuen jarduketaren helburua izango dela Altamirako Agarre edo Agirre baserriaren gaikuntza, ohikoa ez den sistema baten bidez, erabileraren lagapen ereduaren bitartez, hain zuzen, erabiltzaile kooperatiba bat sortuta, ez jabe edo errentariena, baizik eta edukitze kolektiboko sistema batekin. Udalak ez luke galduko eraikinaren jabetza, baina utzi egingo luke azalera eskubidea, eta lankidetzan arituko litzateke kooperatibarekin hautaketan, finantzaketaren bilaketan eta abarretan. Azpimarratu zuen sistema hau baldintza etiko ez espekulatiboetan oinarritzen dela, orotariko bazkideak bilatuta, ghettoen sorrera ekidinda. Zearreta jaunak galdetu zuen hitzarmenean kanonik aipatzen den.

Zearreta jaunak, bere taldearen abstentzioa arrazoitzeke, esan zuen kontra daudela auzotar guztien ondarea batzuei uzteari dagokionez. Esan zuen ados egongo liritekeela alokairua sustatzearekin, baina ez era horretako lagapena, gainera aurrekari bihurtzeko arriskua ekarriko lukeena beste ondasun batzuen lagapenerako (Larrazabale); gainera, hitzarmenean ez da aipatzen kanonik.

Alkate andreak erantzun zion ez dela utziko udal ondarea, jabetzak udalarena izaten jarraitzen baitu; eraikina balioztatatu eta gaituko litzatekeela, eta badagoela kanon bat kobratzeko aukera, ondorengo dokumentu batean zehaztuko litzatekeena, azalera-eskubidea eratzeko eskrituran, bestelako baldintzak ere definituko litzatekeena (hautaketa irizpi-deak, baldintzak, erabiltzaileak, kudeaketa moduak, etab.).

6.- Hitzarmena IGerekin.-

Udalbatzak aho batez onartu zuen José M.^º Ucelay Ikastetxe Publikoko Ikasleen Guraso Elkartearekin sinatu beharreko hitzarmena sinatzea, Altamirako Kultur Etxean kokaturiko lokal bat uzteko, 0 eta 12 urte bitarteko Busturiako haurrentzat jolasgune bat sortze aldera.

5.º.- Convenio con Sostrecivic.-

El Ayuntamiento Pleno, por seis votos a favor y tres abstenciones, acordó aprobar el convenio de colaboración a suscribir con Sostrecivic para el desarrollo de un proyecto piloto del sistema cooperativo MCU (Modelo de cesión de uso) como una fase de la cooperativa de personas usuarias y de viviendas sin fin de lucro Sostrecivic SCCL.

La Sra. Alcaldesa explicó que la actuación tendrá por objeto la habilitación en el caserío Agarre o Agirre en Altamira, mediante un sistema que no es habitual, el de modelo de cesión de uso, con la formación de una cooperativa de usuarios, no de propietarios ni de inquilinos, mediante un sistema de tenencia colectiva. El Ayuntamiento no perdería la propiedad del inmueble, sino que cedería el derecho de superficie, y colaboraría con la cooperativa en las labores de selección, búsqueda de financiación, etc. Recalcó que este sistema se basa en condiciones éticas no especulativas buscando socios de todo tipo, evitando la formación de guetos. El Sr. Zearreta preguntó si en el convenio se hacía referencia a un canon.

El Sr. Zearreta justificó la abstención de su grupo por ser contrarios a ceder gratuitamente el patrimonio de todos los vecinos a favor de unos cuantos. Dijo que ellos sí estarían de acuerdo en promover el alquiler, pero no una cesión de este tipo, que además supondría el peligro de ser un precedente para la cesión de otros bienes (Larrazabale); además de que en el convenio no se hacía referencia al pago de un canon.

La Sra. Alcaldesa le respondió que no se va a ceder el patrimonio municipal, ya que la propiedad se sigue manteniendo; que se pondría en valor y se rehabilitaría el edificio, y que existía la posibilidad de cobrar un canon que se concretaría en un documento posterior, la escritura de constitución del derecho de superficie, que definiría otras circunstancias (condiciones, criterios de selección, personas usuarias, formas de gestión, etc...).

6.º.- Convenio con el AMPA.-

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó la aprobación del convenio a suscribir con la asociación de padres y madres del Colegio Público José M.^º Ucelay, para la cesión de uso de un local situado en el edificio de la Casa de Cultura de Altamira para crear un espacio de recreo para niños/as de Busturia, con edades comprendidas entre 0 y 12 años.



7.- Eskualdeko proiektuei buruzko mozioak.-

Osoko bilkurak, aldeko hiru botorekin eta 6 aurkakorekin, EAJ/EAJren hurrengo mozioari uko egitea adostu zuen “Murgilduta gauden krisialdi sakon honetaz jabetuta, hainbat administrazio publikoren aldetik inbertsio publikoetan murrizketak egitea erabaki den egoera honetan, Bizkaiko Foru Aldundiak gure eskualdean bi azpiegitura garrantzitsu egiteko lanak hasi berri ditu. Mungia-Bermeo ardatzaren barruan dagoen Bermeoko saihebidetako eta Autzagane Amorebieta-Muxika ardatzaren barruan hasitako lanek aurrerakada handia suposatuko dute Busturialdea eskualdeko errepideetako komunikazioa hobetzeko.

Lanak amaitzen direnean, aipatutako ardatz hauek biek ekarriko dituzte gure eskualdean kalitatezko eta kapazitate handiko errepideak izatea. Bideetako segurtasuna nabarmen hobetuko da eta, ondorioz, Busturialdeko enpresei lehiakor izateko aukera berriak emango zaizkie eta hiritarrei erraztuko zaizkie beren bizitokietatik lanpostuetara, merkatal guneetara eta kultura zein aisi guneetara joateko bideak. Azpiegitura hauek beste onura batzuk ekarriko dituzte, besteak beste bidaiak laburragoak izango dira eta, hiriguneetako zaratak eta isurketa kutsakorrek murriztuko dira

Zoritxarrez, duela gutxi, Bizkaiko Herrialde Historikoko Aurrekontuak eztabaidatzeko bilkuran, Bilduren Batzarkide Taldeak Busturialdeko ardatz erradial hauek eraikitzeke funtsak murriztea proposatu du, funtsak Bizkaiko beste eskualde batzuen alde jartzeko, azpiegitura hauek lehenetsi beharrekoak ez direlakoan.

Horregatik guztiagatik eta Busturialdeko hiritar guztiei esandako azpiegiturak babesten eta ziurtatzen ditugula jakinarazteko,

Busturiko EAJ-PNVren Udal Talde honek honako Mozio hau aurkezten du Bilkuran eztabaidatzeko eta onartzeko:

- 1.- Gure eskualdearen garapenean sinesten dugu, eta garapen honen etorkizuna eta denontzako bizitza kalitatea bermatuko duten egitasmoak babesten ditugu.
- 2.- Gure eskualdean ardatz erradial hauek eraikitzearen aldeko agertzen gara, azpiegitura hauek segurtasuna eta bizitza kalitatea hobetzen eta, Busturialdea eskualdea suspertzen eta modernizatzen lagunduko dutelakoan.
- 3.- Bizkaiko Foru Aldundia animatu nahi dugu Busturialderako pentsatuta dituen inbertsioekin segitzera, bereziki ardatz erradial hauek eraikitzeke hasi dituen lanekin; beraz, lan hauei behar besteko lehenetasuna ematea eskatzen ditugu.”

Alkatea Andreak bere taldearen kontrako botoa honela justifikatu zuen:

7.º.- Mociones sobre proyectos comarcales.-

El Ayuntamiento Pleno, por tres votos a favor y 6 en contra, acordó rechazar la siguiente moción de EAJ/PNV:

“Conscientes del actual escenario de crisis en la que nos encontramos inmersos, y cuando muchas de las administraciones públicas están optando por un recorte generalizado de las inversiones públicas, la Diputación Foral de Bizkaia ha emprendido recientemente la construcción de dos importantes infraestructuras en nuestra comarca.

La construcción de la variante de Bermeo, como parte del eje Mungia-Bermeo, y los primeros pasos de Autzagane, dentro del eje Amorebieta-Muxika, van implicar un avance muy significativo para la mejora de las comunicaciones viales en Busturialdea.

Ambos ejes permitirán, tras su puesta en servicio, dotar a nuestra comarca de infraestructuras viarias de alta capacidad y calidad, mejorando, de manera significativa la seguridad vial, además de la competitividad de las empresas de Busturialdea, facilitando el acceso de todos los ciudadanos de sus municipios a centros de trabajo, comercio, cultura y ocio.

Estas nuevas infraestructuras incidirán también positivamente en aspectos como el ahorro de tiempos de viaje, la reducción de ruidos en centros urbanos y la emisión de emisiones contaminantes.

Lamentablemente en fechas pasadas, con motivo del debate del Proyecto de Presupuestos del Territorio Histórico de Bizkaia, el grupo juntero de Bildu ha propuesto reducir los fondos destinados a la construcción de los ejes radiales en Busturialdea, a favor de otras comarcas de Bizkaia, considerando estas infraestructuras no prioritarias.

Por todo ello, y con la finalidad de transmitir nuestro apoyo a estas infraestructuras y seguridad a todos los habitantes de Busturialdea,

Por parte del Grupo Municipal de EAJ-PNV de Busturia se propone para su debate y aprobación la siguiente moción:

- 1.º.- Creemos en el desarrollo de nuestra comarca y defendemos todos aquellos proyectos que supongan futuro y calidad de vida.
- 2.º.- Mostramos nuestro apoyo a la construcción de los ejes radiales en nuestra comarca, como medio fundamental para la mejora de la seguridad, de la calidad de vida y regeneración y modernización de Busturialdea.
- 3.º.- Animamos a la Diputación Foral de Bizkaia a continuar con las inversiones en Busturialdea, especialmente con los ejes radiales ya iniciados y darle con ello la prioridad necesaria a las mismas.”

La Sra. Alcaldesa justificó el voto en contra de su grupo en lo siguiente:



Busturiko
Udala



Akta

tifikatu zuen:

“Ezetz esateko argudioa lehenetasunetan datza, alegia guk bestelako lehenetasun batzuk ikusten ditugu Eskualderako: saneamendua, ospitalea, trenbide sarearen bikoizketa,...

Ardatz erradialak bai edo ez baina, eztabaida beste bat izan beharko litzateke. Guk argi dugu Bizkaian inbertsio guztiak Bilbo Handian egin izan dituzten bitartean, Busturialdeak ez duela izan behar besteko arretarik errepide sarearen berriztatzean, ezta herrietako errepideetako puntu beltzak hobetzeko ere ez. Horregatik guk errepideak hobetzeari bai, inbertsioei bai, eta gainera sare guztian, hori da gure apustua, dagoen errepide sarea hobetzea.

Kontutan izan behar dugu Sollube geldituta dagoela dirurik ez omen dagoelako eta Autzaganean puntu batetik aurrera ez dagoela argi zer gertatuko den. Egoera honen arduradunek aurreikuspen falta izan dute, eta hauxe dugu urteetan PNVk BFAtik eta EJTik abandonatuta izan duen eskualdearen egoera erreala.”

Bilduko zinegotziek gai beraren gainean hurrengo proposamena aurkeztu zuten eta 6 aldeko botoekin eta 3 kontrakoekin onartua izan zen Osoko Bilkuraren onespenerako:

“Egun bai Euskal Herrian eta baita mundu mailan ere krisi estruktural eta sistemiko batean murgilduta gaude: ekonomikoa, soziala, ekologikoa, energetikoa, finantzieroa... Ezarritako politika neoliberalen ondorioz, finantza kapitalismoak garrantzi berezia hartu du langileriaren eta kapital ez-finantzarioaren kaltetan.

Bizkaia eta konkretuki gure eskualdea, Busturialdea, ez daude krisialdi honetatik kanpo. Gogor jo gaitu, eta tamalez ez da lortu eskualdea oinarriko azpiegiturretaz hornitzea (saneamendua, ospitalea, garraio publikoa....) eta ezta ere ekonomia dibertsifikatu eta errentaren birbanaketa justua goa egitea.

Krisialdiarekin, gure herrietako egoerak are gehiago egin du okerrera eta labur bada ere, hemen dituzue egoera sozio-ekonomiko ahula azaltzen duten hainbat adierazle:

Langabezia eta prekaritatearen gorakada: Jarduera tasa %46,03, Bizkaikoa eta EAeko baina txikiagoa (45.676 biztanletik, 18.961 lanean, 2.064 langabetu eta 24.651 aktibitate gabe)

Familien errenta eta errenta pertsonala EAeko baina %6,7 baxuagoa da eta Bizkaikoa baina %5,5

Industriari loturiko lanpostuak beherantz doaz. 2001etik 2008ra enpleguak %26,5ean egin du behera eta azken urte honetan hainbat enpresen deslocalizazioak eta itxierak bizi izan ditugu

Azken 20 urteetan erdira jaitsi dira eskualdean nekazaritziaren titularrak (1.019) eta eurek kudeatzen duten lur

siguinte:

“Nuestra negativa a la propuesta de EAJ se basa en que nosotros vemos otras prioridades para nuestra comarca: saneamiento, hospital, desdoblamiento de la red ferroviaria, el debate debería de ser otro, no el de si o no al eje radial. Tenemos claro que mientras que todas las inversiones se han realizado en el gran Bilbao, Busturialdea, no ha tenido la atención necesaria en la renovación de la red de carreteras, ni en la mejora de los puntos negros de los caminos municipales, etc.

Por eso nosotros decimos sí a la mejora de caminos, sí a las inversiones, además en toda la red. Esa es nuestra apuesta, mejorar la red viaria existente.

Tened en cuenta que Sollube esta parado porque no debe haber dinero, y que en Autzagane no está claro lo que sucederá a partir de un punto. Los responsables de esta situación han tenido falta de previsión, y esta es la situación real de abandono que durante años nos han dejado el PNV, la Diputación y el Gobierno Vasco”.

Los concejales de Bildu presentaron la siguiente propuesta sobre el mismo tema que fue aprobada por 6 votos a favor y 3 en contra para su aprobación por el Pleno:

“Hoy por hoy, sí a nivel del País Vasco y mundial, estamos sumergidos en una crisis sistemática y estructural: económica, social, ecológica, energética, financiera... a consecuencia de la política neoliberal impuesta, el capitalismo financiero ha tomado especial importancia, en perjuicio de los trabajadores y el capital no financiero.

Bizkaia, y en concreto nuestra comarca, Busturialdea, no está fuera de esta crisis. Nos ha tocado fuerte, y por desgracia no se ha conseguido proveer de infraestructuras (saneamiento, hospital, transporte público...) y tampoco de una economía más diversificada y un reparto de riqueza más justo.

Con la crisis, se ha agravado la situación de nuestros municipios, y aunque sea brevemente aquí tenéis un montón de indicadores que explican la situación socio económica tan débil.

Aumento del paro y la precariedad: 46,03 % de tasa de ocupación, más pequeña que la de Bizkaia, y la Comunidad Autónoma Vasca (de 45.676 habitantes, 18.961 trabajando, 2.064 parados y 24.651 sin actividad)

La renta de las familias un 6,7 % menor que la de la Comunidad Autónoma Vasca y un 5,5% menor que la de Bizkaia.

Se están perdiendo puestos de trabajo relacionados con la industria. Del año 2001 al 2008 el empleo ha descendido un 26,5 % y estos últimos años hemos vivido varias deslocalizaciones y cierres de empresas.

Los últimos 20 años en la comarca han bajado a la mitad los



kopurua (8.007 Ha). Lur gutxiago lantzeak berarekin ekarri du produkzioaren jaitsiera, egun, berton kontsumitzen diren elikagaien % 5a ere ez da bertokoa. Kanpoko elikadura menpekotasuna daukagu beraz.

Bermeoko portuan EAE-ak eskumen eskusiboa izanda ez zaio lan-etekin, etekin ekonomiko ezta komertzial apartekorik atera. Ez da indartu edota, bereziki, bultzatu.

1998. urtean, tokiko instituzioen, taldeen, sindikatuen, enpresariaren eta oro har Busturialdeko herritarren bultzadaz adosturiko JSEGE-PADAS proposamena aurkeztu zen. Eskualdearen garapen sozioekonomiko integrala, orekatua eta jasangarria bultzatzeko beharrezkoak ziren jarduketa larriak eta proposamen zehatzak biltzen zituen. Bertako biztanleek egindako gogoeta eta eztabaida prozesu sakon eta luze baten ondorioz adostu ziren. Parte hartzea eta aniztasuna oinarri izan zituen, sektore sozioekonomiko guztiak aintzat hartuz eta ingurunearen aberastasuna eta berezitasuna kontutan hartuz. Tamalez, egitasmo horiek gauzatzeko beharrezko inbertsioak ez dira gauzatu eta ez da lortu administrazio ezberdinek era koordinatu batean lan egitea helburu horiek bideratu aldera.

Erronka bezala, kalitateko enpleguak sortu dituen tokiko ekonomia berritzailea, ekologikoa eta solidarioa bultzatu nahi dugu, lan-ildo hauekin:

Kalitateko enplegua sortuko duen plana eta langileon defentsa aktiboa

Gizarte-ekonomia berritzailea eta balio erantsi handikoa sustatu

Lan-eremuan aukera berdintasunaren alde eta bazterketaren aurka lan egin

Bertako nekazaritza eta abeltzaintza agroekologikoa bultzatu.

Kontsumo arduratsua sustatu eta bertako merkataritza babestu

Bidezko-merkataritza eta elkartasun nahiz lankidetzaproiektuetan sakondu.

Azpiegiturei dagokienez, ezinbestekotzat jotzen dugu ondokoak diruz hornitzea ahalik eta eperik laburrenean:

Saneamendua, bai falta den obra zatia bukatzeko, kolektoreari dagokienez eta baita gainontzeko herrietako auzoei dagokienez bertako saneamendu sistemak diseinatu eta exekutatzeko.

Garraio publikoan, trenaren bikoizketa eta orokorrean herrietako gabeziak asetzea zein egungo errepideen hobekuntza dira lehen bait lehen egikaritu beharrezkoak.

Gernikako Erresoluzio Handiko Zentroa oheez hornitzea eta bertan pediatria eta helduentzako 24 orduko larrialdi zerbitzuarekin. Era berean ezinbestekotzat jotzen dugu oinarriko

titulares de explotaciones agrícolas (1.019) y las tierras que ellos gestionan (8.007 Ha.), el trabajar con menos suelo ha conllevado a la bajada de producción, hoy en día, ni el 5% de los productos que se consumen aquí son de nuestras tierras. Por todo esto tenemos dependencia de alimentación de fuera.

Al puerto de Bermeo, aunque sea competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma Vasca, no se le ha sacado rentabilidad, ni económica ni comercial. No se ha fortalecido, ni impulsado especialmente.

En 1998, se presentó la propuesta JSEGE-PADAS aprobado por las instituciones locales, grupos, sindicatos, empresarios y en general impulsada por los habitantes de Busturialdea, el cual recogía las propuestas y líneas de actuación necesarias para impulsar el desarrollo socioeconómico integral, equilibrado y sostenible para el desarrollo de la comarca. Se acordaron tras un proceso largo y profundo de debate y reflexión realizado por los vecinos, el cual tuvo como base la participación y la pluralidad, teniendo en cuenta todos los sectores socio económicos y la riqueza y diversidad del entorno. Por desgracia no se han llevado a cabo las inversiones necesarias para realizar estos proyectos y tampoco se ha conseguido que las distintas administraciones trabajen de forma coordinada para poder conseguir estos objetivos.

Tenemos como objetivo impulsar la economía local renovadora, ecológica y solidaria que vaya a crear empleos de calidad, con las siguientes líneas de trabajo:

Un plan que vaya a crear empleo de calidad y defensa activa de los trabajadores.

Impulsar economía social renovadora y de gran valor añadido.

Trabajar en el área de trabajo por la igualdad de oportunidades y en contra de la marginación.

Impulsar la agricultura y ganadería agroecológica local.

Impulsar el consumo responsable y proteger el comercio local.

Profundizar en el comercio justo, solidario y cooperativo.

En cuanto a infraestructuras, creemos imprescindible dotar de dinero los siguientes temas a la mayor brevedad posible:

Saneamiento, tanto para terminar el tramo que falta en cuanto a colectores, así como para diseñar y ejecutar los sistemas de saneamiento de los barrios que faltan en los municipios.

En el transporte público, el desdoblamiento ferroviario y, en general, cubrir las carencias en la mejora de los caminos de los pueblos es, en la actualidad, lo más urgente.

Dotar de camas y que haya servicio de pediatría y de urgencia de 24 horas en el Centro de Alta Resolución de Gernika-Lumo.

Asimismo creemos necesario que se mantenga el servicio



Osasun zerbitzua herri guztietan mantentzea eta zentsu honetan ez dugu murrizketarik onartuko.

Ingurumenari so eginez, ez dugu ahaztu behar Busturialdeko zati handi bat Urdaibai barruan dagoela; ja 30 urte pasatu dira babes-izendapen hori eman zitzaionetik baina oraindik orain ez da lortu Biosfera Erreserbak eskaintzen dituen baliokak potentziatzea eta ematen du hori neurri batean ez dela gertatu batzuk ez dutela horretan sinesten eta horregatik urte guzti hauetan trabak jartzen eta mezu ezkorrak zabalzten aritu izan dira, izendapen hori mesprezatuz.

Horregatik guztiagatik eta Busturialdeko herritar guztiei egoera sozio-ekonomikoaren jabe garena eta lehentasunak argi ditugula jakinarazteko, BUSTURIKO BILDUren Udal Talde honek honako Mozio hau aurkezten du Bilkuran eztabaidatzeko eta onartzeko:

1.-Gure eskualdearen garapenean sinesten dugu, eta garapen honen etorkizuna eta denontzako bizitza kalitatea bermatuko duten egitasmoak babesten ditugu. Horregatik eskatzen dugu JSEGE-PADAS-ean ezarritako gidalerroak diruz hornitzea eta BFA-k eta Eusko Jaurlaritzak hartutako konpromisoak eta emandako hitza betetzea.

2.- Gure eskualdean egun dauden lanpostuak mantentzeko ahalegina egitea eta etorkizunera begira alderdi guztien artean garapen iraunkor, dibertsifikatu eta orekatu bateranzko plangintza diseinatzea, enplegu berriak sortu aldera.

3.-Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza animatu nahi ditugu eskualdea horni dezaten falta zaizkigun oinarriko azpiegituz (saneamendua, ospitalea, trenaren bikoizketa etab.)”.

Zearreta jaunak, bere taldeak kontra bozkatu izana arrazoi-tzeko, esan zuen Bilduren proposamena proposamen orokorrez egina zegoela, eta mota desberdinetako gaiak (ospitaleak, saneamendua...) izanda hizpide, inolako neurrik zehaztu gabe.

Malaxetxebarria andreak erantzun zion nola jo daitekeen abstraktutzat ospitale, saneamendu edo Busturia zeharkatzen duen errepideko zeharbideko hobekuntzei buruz mintzatzea.

ordinario de salud en todos los pueblos y en este sentido no vamos a permitir recortes.

Considerando el medio ambiente, no debemos olvidar que gran parte de Busturialdea forma parte de Urdaibai, no hay que olvidar que casi han pasado 30 años desde que se le dio esa categoría de protección, pero todavía hoy en día no se ha logrado impulsar los valores que ofrece la Reserva de la biosfera y parece que eso ocurre porque algunos no creen en ello y se han puesto muchos obstáculos y han mandado muchos mensajes negativos durante todos estos años, despreciando ese nombramiento.

Por todo ello, y para dar a conocer a todos los habitantes de Busturialdea que somos conscientes de esta situación socio-económica y que tenemos claras la prioridades,

El grupo municipal de BILDU presenta esta moción para debatir en el Pleno y aceptar:

1.- Creemos en el desarrollo de nuestra comarca, y defendemos este desarrollo y el proyecto que va a garantizar en el futuro la calidad de vida de todos. Por esto solicitamos que se provean de fondos las líneas estratégicas recogidas por el JSEGE-PADAS, y que la DFB y el GV cumplan con los compromisos adoptados y la palabra dada.

2.- Esforzarnos para mantener los puestos de trabajos existentes en nuestra comarca, y diseñar entre todos los partidos un plan dirigido al desarrollo sostenible, diversificado y estable, tendente a crear nuevos empleos y con miras al futuro.

3.- Queremos animar a la Diputación Foral y el Gobierno a que doten a la comarca de las infraestructuras que nos faltan (saneamiento, hospital, desdoblamiento ferroviario, etc.)”.

El Sr. Zearreta justificó el voto en contra de su grupo en que la propuesta de Bildu estaba redactada en forma de propuestas muy genéricas y refiriéndose a asuntos de distinto tipo (hospitales, saneamiento, etc.), sin concretar ninguna medida.

La Sra. Malaxetxebarria le contestó que cómo se podía considerar abstracto referirse al hospital, al saneamiento, o a las mejoras en la travesía de la carretera a través de Busturia.

8.- Erretiro Partzialerako Plana.-

Udalbatzak aho batez onartu zuen berrestea Erretiro Partzialerako Plana ezartzeko enpresa-akordio kolektiboa, 2013ko martxoaren 26an Alkate andreak eta Udaleko langileen ordezkariak izenpetua, eta 2018ko abenduaren 3ra arte egongo dena indarrean.

8.º.- Plan de Jubilación Parcial.-

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó ratificar el acuerdo colectivo de empresa para el establecimiento del Plan de Jubilación Parcial suscrito el 26 de marzo de 2013, entre la Sra. Alcadesa y la representante de los trabajadores del Ayuntamiento, y que tiene vigencia temporal hasta el 31 de diciembre de 2018.



9.- Galde-eskeak.-

Zearreta jaunak adierazi zuen azken informazio-batzordean emandako erantzunaren aurrean, azken sei hiletan hirugarren aldiz galdetu zutenean hirigintzako espedienteen gainean, eta erantzun zitzaienean gobernu taldeak erabakitzen dituela udalaren lanaren lehentasunak, bere taldeak jarrera hori salatu nahi zuela, udalerrian egiten diren hirigintzako azpiegituren zaintza eta zuzentasuna bezalako gai garrantzitsuak ez delako mahai gainean jartzen, dela baliabide ezagatik, dela gaitasun ezagatik.

Alkate andreak erantzun zion gobernu taldeak lehentasun jakin batzuk dituela, eta gobernu programa baten arabera-koak direla. Lehenik eta behin, diagnostiko bat egin da egungo egoera ezagutzeko eta, beraz, gazteria, agenda21, lokalak, aurrekontua eta abar aztertu dira. Ondoren, helburu orokor batzuk erabaki behar dira, eta, horretarako, bilera bat deitu da maiatzaren 2an, auzotarren iritzia jakiteko.

Arau-hausteei buruz esan zuen gobernu taldeak ez duela inolako erantzukizunik, aurreko legealdietatik datozelako, eta ez dutela onartuko haiek erabakitzea gobernu taldearen agenda. Dagokien unean helduko zaie, baina lehentasunak gobernu taldeak erabakitzen ditu. Esan zuen konponduko direla, baina osorik kontuan hartuta eta idazten den plan estrategikoaren baitan.

Zearreta jaunak galdetu zion ez al dagoen gobernu taldearen lehentasunen artean Busturiako Udalak onarturiko arauak betearaztea. Esan zuen ez zirela lehentasunez hitz egiten ari, baizik eta, besterik gabe, legeak betearazteaz.

Alkate andreak ihardetsi zion gobernu taldeak ez duela legerik urratu, eta egon litezkeen arau-hausteak aurreko legealdietatik datozela, beraz, ezin zaiola haien gaineko erantzukizuna egungo gobernu taldeari egotzi.

Zearreta jaunak esan zuen ez zirela ari egungo gobernu taldea arau-hausteak egin izanaz salatzen, baizik eta horien aurrean legea ez betearazteaz, aurreko edo egungo legealdietatik etorri.

Alkate andreak esan zuen egungo gobernu taldeak legeak betetzen eta betearazten dituela.

Alkatea/La Alcaldesa,

Izp.: Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda

9.º.- Ruegos y preguntas.-

El Sr. Zearreta manifestó que, ante la respuesta dada en la última comisión informativa, cuando preguntaron por tercera vez en los últimos seis meses sobre el tema de los expedientes de disciplina urbanística, y se les respondió que era el equipo de gobierno el que marcaba las prioridades del trabajo municipal, su grupo de concejales quería denunciar este comportamiento, ya que un asunto importante como es la vigilancia y corrección de las infracciones urbanísticas que se producen en el municipio no se ponen sobre la mesa bien por falta de recursos o de capacidad.

La Sra. Alcaldesa le respondió que el equipo de gobierno tiene unas prioridades y responde a un programa de gobierno. En primer lugar ha sido realizar un diagnóstico para conocer la situación actual y así se ha analizado la juventud, agenda21, locales, presupuesto, etc... Posteriormente, hay que marcar unos objetivos generales y para ello hay convocada una reunión el dos de mayo, para conocer la opinión del vecindario.

Respecto de las irregularidades dijo que el equipo de gobierno no tiene responsabilidad en ellas, ya que vienen de legislaturas anteriores y no van a permitir que esas irregularidades marquen la agenda del equipo de gobierno. Se tratarán cuando corresponda, pero las prioridades las marca el equipo de gobierno. Dijo que se resolverían, pero de forma global y dentro del plan estratégico que se redacte.

El Sr. Zearreta le contestó si no estaba dentro de las prioridades del equipo de gobierno hacer cumplir las normas aprobadas por el Ayuntamiento de Busturia. Dijo que no estábamos hablando de preferencias sino simplemente de hacer cumplir las leyes.

La Sra. Alcaldesa le replicó que el equipo de gobierno no había incumplido ninguna ley y que las posibles infracciones vienen de legislaturas anteriores, por lo que no se puede responsabilizar de ellas al equipo de gobierno actual.

El Sr. Zearreta le dijo que no estaban acusando al equipo de gobierno actual de cometer las infracciones sino de no hacer cumplir la ley frente a ellas, vengan de legislaturas anteriores o de la actual.

La Sra. Alcaldesa dijo que el equipo de gobierno actual cumple y hace cumplir las leyes.

Idazkaria/El Secretario,

Fdo: Víctor-Martín Amparan Álvarez